



HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

Espedientea: DNCG_LEY_135523/17_02

Euskal Enplegu Publikoari buruzko Lege-Proiektuaren berri jaso genuen bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan 2017ko urriaren 23an Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Gobernantza Publikoa eta Autogobernua Saileko Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 14.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

Sarrera.

Besterik esan aurretik aipatu behar dugu xedapenaren edukietako batzuek lotura estua dutela Zuzendaritza honen zereginekin.

Lege-proiektua ordezkatzera dator indarrean dagoen *Euskal Funtzio Publikoari buruzko, uztailaren 6ko, 6/1989 Legea*. Lege horren garapena da *Euskal Autonomia Elkarte*ko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen, apirilaren 15eko, 86/1997 Dekretua.

Aipatu Dekretu hori berritzeko asmoa dugunez, Lege berriaren edukia garrantzi handikoa zaigu baldintzatu dezakeelako bai xedapen horren aldaketa zein Gobernantza Publikoa eta Autogobernua Sailarekin elkarlanean lantzen ari garena *Euskadiko Toki Erakundeei buruzko, apirilaren 7ko, 2/2016 Legea* garatzeko.

Hori horrela, komenigarria ikusi genuen, txosten bat zintzilikatu aurretik, gaia elkarrekin lantzea. Bide horretan heldu ginen sail bion arteko bilerak egitera eta gai batzuk bertan partekatu eta eztabaidatzera.

Edonola ere, izapideak aurrera egin du eta gelditu dira bilera horietan lantzerantz heldu ez ginen gai batzuk. Horiek izango dira txosten honen muina.

Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezarri zuen: *“euskararen erabileraren normalizazioaren arloan eskumena duenak araua prestatzeko hasierako fasean esku hartu ahal izan dezan”*. Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, aurrekoa indargabetuz, bere 4. artikuluan eskaera egiteko epea ezartzen du:

“Proiektua izapidetzen ari den sailak egingo du aholkularitza txostena emateko eskaria, hori taxutzeko espedientea behin behinekoz onartzeko agindua publiko egin ondoren, eta instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa eman ostean”

Izapidetutako dokumentuetan jasotzen denez, aztertzea eskatzen zaigun xedapenaren alde aurreko onarpena urriaren 10ekoa da. Bete da beraz aipatu Dekretuak xede honekin arautua.

Bestalde, aipatzekoa da hasieratik zintzilikatu zirela Lege Proiektuaren euskarazko zein gaztelaniazko zatiak; beraz, bete zela abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7. artikulua. Artikulu hori jarraiki, alde aurreko onarpenak legearen testu osoari buruzkoa izan behar du; euskarazko zein gaztelaniazko zatiak barne.

Xedapen hori betearaztera begirakoa da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakia, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena:

“betiere dagozkion negoziazio, audientzia eta kontsultak egiteko izapideak egin baino lehenago; izapide horiek guztiak ele bitan dagoen testuarekin egin beharko dira. Ondorengo instrukzio faseetan ere, derrigorrezko txostenak eta irizpenak eskatzeko orduan, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testua bidaliko da.”

Ildo beretik, izapidetzearen baitan jasotako txostenek testuaren zati biak hartu beharko dituzte kontuan eta, urratsez urrats, egokitzapenak bietan egin beharko dira. Tramitazioaren baitan egiten diren moldaketak testuaren zati bakarrean burutzea (usadioak ikusita, gaztelaniazkoan oro har) eta amaieran horren itzulpena egitea lege urraketa litzateke; horrelakoetan, prozeduran erabilitako hasierako testuaren erdia alboratuz (euskarazko zatia, adibidez), izapidetzearen ibilbidea jarraitu ez duen testu berri bat onartzen delako.

Hori horrela, zalantzak sortzen digu ikusteak 2017ko urriaren 10ean zintzilikatutako arau-proiektuaren “0” bertsioa osaturik zegoela (euskarazko zein gaztelaniazko zatiak) eta ondoren zintzilikatutako bertsioetan gaztelaniazko zatia besterik ez dugula aurkitzen (2. bertsioa 2018ko ekainaren 12an; 3. bertsioa 2018ko urriaren 4an).

Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

1. Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planei buruz ezarritakoa.

Gaur egun indarrean dagoen Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legean ez dira Plan horiek jasotzen; bai ordea Lege horren zein 10/1982 Legearen garapenerako emandako 86/1997 Dekretuan (eta horren osagarri direnetan arlo zehatz jakinetan).

Hori horrela, euskararen normalizaziorako onuragarria iruditzen zaigu Lege Proiektu berri honetan Plan hauek berariaz jasotzea eta eskertzen dugu horren alde egindako hautua.

Halere, kontuan harturik normalizazioa prozesu dinamikoa dela zailtasunak ekarriko lituzke garai-garaiko egokitzapenak egiteko aukera oztopatzeak. Egun, aurretik aipatu dugun bezala, 86/1997 Dekretua aldatzeko asmotan gabilta eta Lege Proiektuak alor honetan jasotzen dituen zehaztapenak bat datoz egun indarrean dagoen baina aldatzera goazen ereduarekin; hots, horiek Legea onartzerakoan finkatuta geldituko balira, Dekretuaren egokitzapena ezinezkoa bihurtuko litzateke.

Adibide batzuk jartzearren:

- Atal elebidunen eta euskarazko atalen gaia eztabaidatua izan da eta egoeraren arabera baliagarria ikusi bada ere, egoera aldatu ahala zentzua galdu dezake. Lege berrian txertatzeak (proiektuaren 188.3. artikulua a) eta b) azpialak) etorkizuneko egokitzapenak baldintzatuko lituzke.
- Ikusi da Plangintzaldi bakoitzaren tarteko ebaluaketa egitea ez dela eraginkorra eta eskatzen duen esfortzuari ez zaiola behar beste etekin ateratzen; alderantziz, giza baliabideak neurri batean xahutzen direla beste zeregin batzuen kaltetan. Tarteko ebaluaketa hori Lege Proiektuaren 188.4 artikuluan jasotzen denez, bere horretan onartuko balitz, dekretu berrian ere mantendu egin beharko litzateke.
- Ebaluaketaren gaiarekin jarraituz 188.4 artikulua horretan ezartzen da ebaluaketetan (tartekoan zein amaierakoan) erakunde bakoitzaren helburuen betetze maila aztertuko dela Eusko Jaurlaritzaren Kontseilura bideratuko den txostenean. Eredu horren inguruko hausnarketak egin ondoren ikusi da erakunde bakoitzak bere buruari jarritako helburuen betetze maila erakundearen interesekoa dela bere ondorengo planifikazioari begira; aldiz, egokiagoa dela Jaurlaritzaren Kontseilura bideratzea erakundeen hizkuntza egoeraren bilakaeraren azterketa (ezagutzan zein erabileran).

Adibideetan gehiago sakondu gabe, adierazi nahi duguna da egokia iruditzen zaigula Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren figura Legean berariaz txertatzea; baina, normalizazio prozesua dinamikoa denez eta horrek garaian-garaiko egokitzapenak egitea eskatzen duenez, horren garapena Legean txertatu ordez normalizazio prozesurako hobe delako erregelamendu mailara eramatea eta dekretu bidez burutzea (gaur egun egiten den bezala).

Proposamena.

188. artikuluaren leerroalde batzuk kentzea eta egokitzapen batzuk eginez, arau-proposamenaren 3. bertsioako gaztelaniazko testua oinarri harturik, ***honela uztea***:

Artículo 188.- Perfiles lingüísticos y Planes de Normalización del uso del euskera.

- 1. El euskera y el castellano son las lenguas oficiales en las Administraciones públicas vascas, y éstas vendrán obligadas a garantizar en sus relaciones, tanto internas como externas, la utilización de ambas.***
- 2. Las Administraciones públicas vascas procurarán tanto la adecuada capacitación lingüística del personal a su servicio como el uso del euskera por parte del mismo, dentro de su ámbito de actuación, adoptando las medidas necesarias para ello.***
- 3. A tal fin, siguiendo las directrices que para ello establezca el Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de política lingüística, las Administraciones públicas vascas, sus instituciones y organismos, aprobarán su correspondiente Plan de Normalización del Uso del Euskera, donde fijarán, para cada periodo de planificación, los objetivos a alcanzar, las medidas a adoptar y los medios a proveer.***
- 4. El Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de política lingüística emitirá, antes de su aprobación, informe preceptivo sobre las propuestas de Plan de Normalización de cada entidad encuadrada en el ámbito de aplicación de esta Ley. Dicho informe versará sobre la incidencia de la propuesta en la normalización del uso del euskera y sobre su adecuación a la normativa vigente en materia lingüística.***

Las Administraciones públicas vascas, sus instituciones y organismos, facilitarán al departamento competente en materia de política lingüística la información que resulte precisa sobre su personal y demás aspectos relacionados con la materia que le resulten necesarios para llevar adelante la coordinación de la política lingüística y la elaboración de los informes que elevará al Consejo del Gobierno Vasco.

De conformidad con la normativa sobre protección de datos personales, los datos solicitados se registrarán en un fichero automatizado que será gestionado por el departamento competente en materia de política lingüística.

- 5. Todos los puestos de trabajo existentes en las Administraciones Públicas vascas, sus instituciones y organismos, incluidos aquellos de naturaleza temporal o coyuntural, tendrán asignado su correspondiente perfil lingüístico, determinado según las características y necesidades comunicativas atribuidas a dichos puestos de trabajo y a las destrezas lingüísticas exigibles a dicho fin.***
- 6. El perfil lingüístico determina el conjunto de los niveles de competencia lingüística en euskera necesarios para la provisión y desempeño del puesto de trabajo. A partir de su fecha de preceptividad, el cumplimiento del perfil lingüístico se constituirá como exigencia obligatoria para el acceso y desempeño del correspondiente puesto de trabajo.***

Ello no obstante, el Gobierno Vasco, a propuesta del Departamento competente en materia de Normalización Lingüística, determinará reglamentariamente los supuestos en que, con carácter excepcional y por razones objetivamente apreciables, el titular de un puesto de trabajo pueda ser eximido del cumplimiento del perfil asignado al mismo.

- 7. El Gobierno Vasco, a propuesta del departamento competente en materia de política lingüística y, en su caso, del departamento responsable del sector al que se refiriera la concreta planificación lingüística, determinará la clasificación y características de los perfiles lingüísticos y, periódicamente, los criterios para su aplicación a los distintos puestos de trabajo de las Administraciones públicas vascas, sus instituciones y organismos.***



- 8. La asignación del perfil lingüístico a cada uno de los puestos de trabajo existentes en las Administraciones públicas vascas, sus instituciones y organismos, así como su fecha de preceptividad, se efectuará por sus respectivos órganos de gobierno de conformidad con los criterios a los que se refiere este artículo, previo informe preceptivo del departamento del Gobierno Vasco competente en materia de política lingüística.**

En todo caso, para determinar los puestos de trabajo a los que corresponde señalar fecha de preceptividad, se tendrán en cuenta necesariamente los objetivos fijados por cada Administración pública, institución y organismo en su correspondiente Plan de Normalización del Uso del Euskera.

- 9. Tanto el perfil lingüístico como, en su caso, la fecha de preceptividad, deberán quedar incorporados dentro de las especificaciones del puesto de trabajo que han de figurar en las relaciones de puestos de trabajo, así como en los instrumentos complementarios recogidos en el apartado d) del artículo 47.2, conforme a lo previsto en esta Ley.**

- 10. En el caso de puestos de trabajo cuyo perfil lingüístico no tuviera fecha de preceptividad asignada, que estuvieran incluidos en procesos selectivos y de provisión ya convocados, a los cuales se les incorporara fecha de preceptividad con posterioridad a la convocatoria de los citados procesos, dicha modificación será de aplicación para las situaciones que se produzcan hasta tanto no se resuelva la convocatoria, pero no tendrá efectos para la resolución de la convocatoria misma.**

2. Hautaketa prozesuetako hizkuntzak.

Hizkuntza alorreko legediak herritarrei aitortzen dienez hizkuntza hautatzeko eskubidea Administrazioekiko harremanetan, uste zabaldua izan da hautaketa prozesuetan ere aukera eman behar zitzaizela azterketak euskaraz edo gaztelaniaz egitea aukeratzeko.

Garbi dago azterketetako hizkuntza ez dela harremanen esparru komunikatiboan kokatzen eta ugariak dira adibideak, EAĒtik kanpoko estatuko administrazioetan, lanpostuaren baldintzen artean gaztelania ez den beste hizkuntzaren baten ezagutza eskatzen denean, zeinetan ezartzen den azterketa osoa edo haren zati bat hirugarren hizkuntza horretan egin beharko dela.

Hori horrela eta, aintzat harturik 6/1989 Legeak ezartzen duela azterketaren edukia lanpostuaren zereginetara lotuta egon behar dela, gero eta erakunde gehiago hasiak dira ezartzen azterketaren zati bat ezinbestean euskaraz burutu beharko dela lanpostuaren ezaugarrien artean lana edo haren zati esanguratsu bat euskaraz egin behar dela jasota dagoenean.

Horrela egin zuen, adibidez, Erandioko udalak aurreko plangintzaldian. Horren aurrean aurkako helegitea jarri zioten eta jaso duten epaia udalaren aldekoa izan da.

Halere, aintzat harturik erabaki zentzuduna dela, legedian ez dagoela ezer ezarrita horren aurka eta hizkuntza normalizazio prozesuan oso tresna eraginkorra izan daitekeela, funtsezkoa da ahalik eta babes maila juridiko garaiena ematea eta horretarako tresna egokiena da esku artean dugun Lege Proiektu hau.

Proposamenak.

a) Legearen **70.2 artikuluan i) azpiatala kentzea**; eta,

b) Legearen **189. artikuluan** eduki hauek **txertatzea**:

Hautaketa prozesuetan, euskara derrigorrezkoa duten lanpostuetan, erakunde antolatzaileak eskatu ahalko dio hautagaiari azterketaren zati bat behintzat euskaraz egitea, lanpostuari dagozkion ohiko funtzioak gauzatzen badakiela ziurtatzeko. Edonola ere, lanpostuaren zereginaren muina euskara bera denean, edo euskararen normalizazioa, azterketa osoa burutu beharko da euskaraz.

Euskara derrigorrezkoa ez den lanpostuetan hautagaiak aukeratu ahalko du zein hizkuntzatan egin nahi duen azterketa, eta horrela izango dela bermatu beharko zaio.

Epaimahaiak osatzerakoan zainduko da izendatuak nahikoa gaitasun edukitzea bi hizkuntza ofizialetan. Epai-mahaikideek lanpostuari dagokion hizkuntza maila izan beharko dute gutxienez, C2koetan izan ezik, non C1 maila izatea onartuko den.

Edonola ere, hautaketa prozesuaren baitan herritarrei bermatuko zaie hautatzen duten hizkuntza ofizialaren erabilera Administrazioarekiko harremanen esparruan; besteak beste: izenematea, dokumentazioa aurkeztea, alegazio zein helegiteak jartzea.

3. Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko praktikaldia erabiltzeko aukera.

Kasu batzuetan tresna onuragarria izan da gaur eguneko Legean aurreikusita dagoen aukera praktikaldia erabiltzeko hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko.

Proposamena.

189.2 artikuluaren **idazketa aldatzea**, arau-proposamenaren 3. bertsioko gaztelaniazko testua oinarri harturik, **honela utzirik**:

2. A los efectos previstos en el punto anterior, cuando la convocatoria de una plaza tenga su causa en un puesto de trabajo cuyo perfil lingüístico sea preceptivo, el cumplimiento del mismo será exigencia obligatoria para el acceso. El cumplimiento del perfil podrá ser exigido, según se determine en las bases de la convocatoria, tanto mediante su previa acreditación documental como mediante una prueba específica dentro del proceso ***o en el periodo de prácticas que a tal efecto se establezca, sin que en este caso sean de aplicación los límites temporales establecido en el artículo 76 de esta Ley.***

4. Euskararen ezagutza merituen balorazioan.

Gaur egun indarrean dagoen 6/1989 Legean ezartzen da euskararen ezagutza merituz bezala baloratzerakoan % 5 eta % 20 arteko puntuazioa emango zaiola.

Ezartzen da, aldi berean, lanpostuaren baldintza ez den kasuan ezinbestez baloratu beharko dela.

Halere, ezarritakoa aplikatzerakoan zalantzak sortu izan dira erabakitzerakoan lanpostuari ezarritako maila besterik ezin zen baloratu edo azpiko zein gainekoak baloratu ahal ziren; baita, maila jakin bat baldintza izanik, goragokoak baloratzerik zegoen ere.

Horren aurrean, gaia aztertu ondoren, HPStik aspaldidanik zabaldu den jarraibidea izan da aukera horiek guztiek zilegi zirela eta horien alde egin da.

Indarreko araudiaren beste ahulezia bat da Legearen zein Dekretuaren testuak ez datozela bat euskarazko eta gaztelaniazko bertsioetan; kasu batean ehunekoak kalkulatzeko puntuaketa osoa hartzen da aintzat, bestean gainontzeko puntuaketa besterik ez (euskarari dagokiona alboratuta utzirik).

Lege Proiektuaren “0” bertsioan 6/1989 Legean ezarritakoa mantentzen zen baina, aipatutako bi aukeren artean, euskararen balorazioa bertsio apalarenera eramanez.

Aldiz, 3. bertsioan ereduaren guztiz aldatuta agertzen zaigu euskararen balorazioaren kaltetan.

Aldi berean, kontuan hartu behar dugu:

- a) Hizkuntzarentzako Europako Marko Bateratuaren aplikazioak ekarri duela orain arte eduki dugun 1. hizkuntza eskakizunaren azpiko maila bi agertzea; hots, A1 eta A2.
- b) Gero eta indar gehiago ari dela hartzen hizkuntza maila asimetrikoak ezartzearen aldeko hausnarketa. Horren arabera egon ahalko lirateke gaur eguneko maila baino apalagoak (adibidez, B2 ahoz eta ezer ez idatziz) edo B2 eta C1 mailen arteko konbinaketak.
- c) HAEE lantzen ari dela azterketa bereziak ezaugarri bereziak (adimen urritasuna, adibidez) dituzten kolektibo batzuentzat.

Kasu batzuetan gertatu izan da hizkuntza gaitasunaren ziurtagiria eduki arren enplegatu publikoren batek bere lanpostuaren zereginak euskaraz burutzeko gaitasuna galdua izatea. Horren aurrean erakunde batzuk hizkuntza eskakizun garaia ezartzearen aldeko joera agertu dute.

Joera hori ekiditeko eta, aldi berean langileen gaitasun nahikoa bermatze aldera, oso tresna eraginkorrak suertatu izan dira bai lanpostuari ezarritako mailaren goragokoak merituz bezala baloratzea zein azterketaren zati esanguratsu bat euskaraz egitea ezartzea.

Proposamenak.

Euskararen balorazioaren puntuaketaren ehunekoa finkatzerakoan prozesuan jokoan dagoen puntuaketa osoa aintzat hartzea (euskarari dagokiona barne).

Planteatzen den eredu berriaren ordeztu aurrekora itzuli, baina, % 5etik % 20ra arteko aukera jarri beharrean ezartzea gehienez ere %20koa izango dela. Horrela aukera zabaltzen da % 5a baino gutxiagokoa izateko aurretik aipatutako kasuetako batzuetan.

Idazketa egokitzea zalantzarik egon ez daitezzen meritu balorazioa aplikatzerakoan goragoko zein beheragoko maileri.

Horretarako:

a) **71.2 artikulua azken esaldia egokitzea**, arau-proposamenaren 3. bertsioko gaztelaniazko testua oinarri harturik, **honela utzirik**:

2. Las Administraciones públicas vascas informarán, en cada convocatoria, sobre el número de dotaciones de puestos de trabajo que tienen perfil lingüístico preceptivo, de acuerdo con lo establecido en las relaciones de puestos de trabajo o instrumentos similares, para cuyo acceso será requisito imprescindible acreditar la competencia lingüística exigida para el desempeño del puesto convocado. En las bases de las convocatorias se individualizará qué número de plazas tienen perfil lingüístico con fecha de preceptividad vencida **y se recogerá la valoración que como mérito se atribuirá a los diferentes niveles de conocimiento del euskera.**

b) **100.1 artikulua e) azpiatala egokitzea**, arau-proposamenaren 3. bertsioko gaztelaniazko testua oinarri harturik, **honela utzirik**:

e) El nivel de conocimiento acreditado del euskera.

c) **189.3 artikulua idazketa aldatzea**, arau-proposamenaren 3. bertsioko gaztelaniazko testua oinarri harturik, **honela utzirik**:

3. Para establecer la valoración que como mérito haya de otorgarse al conocimiento del euskera en cada convocatoria de pruebas selectivas se tendrá en cuenta cual es el nivel predominante asignado a cada puesto de trabajo; de modo que la puntuación que se otorgue a la acreditación de niveles inferiores y superiores habrá de ser coherente y proporcionada a la puntuación establecida para el citado nivel.

La puntuación otorgada al conocimiento del euskera representará un porcentaje que no podrá ser en ningún caso superior al veinte por ciento de la puntuación máxima alcanzable en el conjunto del proceso selectivo.

En cualquier caso, la valoración que se otorgue a la acreditación del nivel específico correspondiente al puesto de trabajo no podrá ser en ningún caso inferior al cinco por ciento de la puntuación máxima alcanzable en el conjunto del proceso selectivo. En caso de que el nivel correspondiente al puesto de trabajo fuera equivalente o superior al nivel C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas, esta valoración no podrá ser en ningún caso inferior al once por ciento de la puntuación máxima alcanzable en el conjunto del proceso selectivo.

Cuando la acreditación del perfil correspondiente al puesto de trabajo resultara preceptiva, la acreditación del nivel preceptivo o de niveles inferiores al mismo no será computada como mérito. No obstante, cuando en una misma convocatoria se incluyan puestos de trabajo con preceptividad vencida junto con otros que no la tengan, en los listados con los resultados del proceso selectivo se aplicará la valoración correspondiente al mérito a cada aspirante a fin de establecer el orden de prelación con anterioridad a la adjudicación de plazas. Lo mismo se aplicará en el caso de convocatorias para cobertura de bolsas de trabajo cuando las mismas tengan por objeto atender a las necesidades de personal en puestos de trabajo entre los cuales algunos tengan fecha de preceptividad vencida y otros no.

5. Enplegatu publikoen betebeharrak hizkuntza alorrean.

Guri heldutako informazioaren arabera erakunde batzuetan gertatu izan da langile publikoren batek aldarrikatzea herritarren aurrean gaztelania zein euskara hizkuntza ofizialak izanik berak, langileak, eskubidea duela bere hautuaren arabera bata edo bestea erabiltzeko herritarrak artatzerakoan, herritarren hautatze eskubidea errespetatu gabe.

Lege Proiektuaren “0” bertsioan 3 artikulutan garatzen ziren, modu nahiko zabalean, “Euskal enplegatu publikoen etika-kodea eta betebeharrak” (XI. Tituluaren II. Kapitulua).

Honela esaten zuen 169.1.f) artikulua:

169. artikulua.- Euskal enplegatu publikoen jokabide-kodea eta betebeharrak. Oinarrizko printzipioak.

1. Euskal enplegatu publikoek lege honetan eta berori garatzeko araudian ezarritako betebeharren eta jokabide-kodearen arabera jardungo dute, eta, zehazki, printzipio hauek hartuko dituzte aintzat:

f) Kultura-ingurunea sustatzea, eta, bereziki euskara babestea, betiere, hargatik eragotzi gabe herritarrari arreta ematea berak aukeratutako hizkuntzan.

Honela 170.h) artikulua:

170. artikulua.- Euskal enplegatu publikoen jokabide-kodea.

Oinarrizko legerian aurreikusitakoari kalterik egin gabe, euskal administrazio publikoetako enplegatu publikoek honako printzipio hauen arabera jardungo dute (euren jokabide-kodea osatzen duten printzipioak):

h) Enplegatu publikoek euskararen erabilera sustatuko dute euskal administrazio publikoetan. Nolanahi ere, herritarrak aukeratzeko duen hizkuntzan erantzungo dute.

Eta, honela zioen 171. artikulua bere azken lerroaldean:

171. artikulua.- Euskal enplegatu publikoen betebeharrak, jokabide-kodean eta horren printzipioetan oinarritutakoak.

Oinarrizko legerian aurreikusitakoari kalterik egin gabe, honako betebeharrak hauek dituzte euskal administrazio publikoetako enplegatu publikoek:

Herritarrei arreta euskaraz zein gaztelaniaz emango zaiela bermatzea, horretarako onartzen diren hizkuntza-politikako arauen arabera, eta lege honen XIII. Tituluan xedatutakoa kontuan hartuta.

Testuaren 3. bertsioan, aldiz, artikulua bakarrik aurkitu dezakegu, 167 zenbakiduna, nahiko laburra dena. Artikulu horretan ez dago hizkuntzei buruzko aipamen zehatzik; gaia garatu ordez honela dio:

Artículo 167.- Principios generales que inspiran el código ético y de conducta del personal empleado público vasco.

2.- De conformidad con lo dispuesto en el punto anterior, la actuación profesional del personal empleado público vasco se llevará a cabo desde el respeto a los principios de integridad y transparencia y con plena observancia de los principios de conducta individual, de calidad institucional y de relación con la ciudadanía recogidos en los artículos 6, 7 y 8 de la Ley 1/2014, de 26 de junio, Reguladora del Código de Conducta y de los Conflictos de Intereses de Los Cargos Públicos.

Aipatzen duen 1/2014 Legearen 6., 7. eta 8. artikuluen edukien artean 8.ean besterik ez dugu aurkitzen gaiari buruzko aipamen lausoa.

Proposamena.

167. artikuluan, enplegatu publikoen betebeharren artean **txertatzea**:

Enplegatu publikoek euskararen erabilera sustatuko dute euskal administrazio publikoetan. Nolanahi ere, bermatuko dute herritarrei arreta euskaraz zein gaztelaniaz emango zaiela, herritarren hautuari jarraikiz, horretarako onartzen diren hizkuntza-politikako arauen arabera.

Erakundeen zerbitzura jarduten duten langileek lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatu baldin badute, behar bezalako gaitasuna aitortuko zaie lanpostuaren berezko funtzioak hizkuntza ofizialetan egiteko, hizkuntza-eskakizun bakoitzaren arabera. Hortaz, euskara zein gaztelania laneko hizkuntza eta zerbitzu-hizkuntza gisa erabili beharko dute, beti ere erakundeak ezarritako erabilera-irizpideei jarraikiz eta zerbitzuaren beharren arabera.

Edo eduki hauekin artikulua berri bat gehitzea gai honi buruz XIII. Tituluan, hizkuntza normalizazioari buruzkoan.

6. Kide anitzeko organoen osaera.

Xedapen proiektuaren baitan zenbait kide anitzeko organoren eraketak arautzen dira.

Organo horietako kideek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egon daitekeen dokumentazioa kudeatu beharko dutenez, zein organoko gainontzeko kideen hizkuntza eskubideak modu eraginkorren bermatzeko eta administrazioak jarraitu beharreko eraginkortasun eta efizientzia irizpideei jarraituz, komenigarria ikusten dugu xedapen gehigarri bat txertatzea jarraian proposatzen dugun testuarekin.

Proposamena.

Xedapen gehigarri bat txertatzea jarraian proposatzen dugun testuarekin:

Kide anitzeko organoetarako kideak izendatzerakoan kontuan hartuko da kide horiek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan nahikoa gaitasuna izan behar dutela, bileretan euskaraz ere egin daitekeela bermatzeko.

Euskararen normalizazioa helburu organoak horrela erabakitzen badu, bilera deialdiak, gai zerrendak, aktak, ziurtagiriak eta testu idatziak, oro har, euskaraz bideratu ahalko dira. Bestelakoa erabakitzen bada Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da.

7. HAEE eta HABE erakundeen arteko hitzarmena.

Aurreko Lege Proiektua izapidetu zenean HAEE eta HABE erakundeek testu bat adostu zuten gai honen inguruan. Ikusten dugunez, izapidean jarri den testuan adostutakoa jaso beharrean aurretik zegoen idazketara itzuli da.

Proposamena.

190.6 artikuluan HAEE eta HABEren artean adostutako testua txertatzea, arau-proposamenaren 3. bertsioko gaztelaniazko testua oinarri harturik, *honela utzirik*:

6. El Instituto Vasco de Administración Pública formalizará con el Instituto para la Alfabetización y Reeskaldunización de Adultos (HABE), como organismo competente en materia de euskaldunización de adultos, el correspondiente convenio de colaboración en relación con la euskaldunización del personal al servicio de las Administraciones públicas vascas, de acuerdo con el contenido curricular del proceso de aprendizaje del euskera.

8. Lanpostu zerrendetan agertzen ez diren lanpostuak.

Lege Proiektuaren 45. artikulua ezarritakoari jarraiki lanpostu zerrendetan lanpostu estrukturalak besterik ez dira jasotzen (gaur egun ere horrela egiten da).

Halere, badaude zenbait lanpostu erakunde anitzetan estrukturaltzat hartuak ez izan arren nahiko iraunkorrak direnak eta kasu askotan herritarrekin harreman zuzenak dituztenak.

Lanpostu zerrendetan ez daudenez ez dute zertan bete 46. artikuluan ezarritakoa lanpostu zerrendetako lanpostuentzako; hots, hizkuntza eskakizuna ezarrita edukitzea eta horrela dagokienean baita derrigortasun data ere.

Lanpostu hauen aipamena 47. artikuluan aurkitu dezakegu dioenean:

Artículo 47.- Instrumentos complementarios de ordenación del empleo público.

2. Los instrumentos complementarios de gestión serán aprobados por el órgano competente en materia de empleo público de las respectivas Administraciones públicas vascas, deberán contener, entre otros, los siguientes datos:

d) Identificación de puestos de trabajo de naturaleza coyuntural o temporal para la ejecución de programas temporales o para hacer frente a las cargas de trabajo que no puedan ser atendidas con los recursos ordinarios o los que satisfagan necesidades de carácter periódico o discontinuo.

Esan bezala, zenbait kasutan lanpostu horiek garrantzi handia eduki dezakete Hizkuntza normalizazioan eta herritarren Hizkuntza eskubideak bermatzerakoan.

Proposamena.

189.3 artikuluari 4. lerroaldea gehitzea, arau-proposamenaren 3. bertsioko gaztelaniazko testua oinarri harturik, ***honela esanez***:

4. En la relación que contenga los puestos de trabajo de naturaleza coyuntural o temporal a que alude el apartado 2. de este artículo, entre sus características deberá figurar siempre el perfil lingüístico del puesto de trabajo y, en su caso, la fecha de preceptividad.

Azkenik, ohartu gara testuaren “0” bertsiotik 3. bertsiora artikuluen numerazioa aldatu bada ere, artikuluen edukietan txertatzen diren beste batzuekiko loturak ez direla kasu guztietan eguneratu.

Horrela, “0” bertsioaren 81. artikulua lotura egiten zuen 195. artikuluekin; 3. bertsioan 80. artikulua bihurtu da lehengo 81. eta 191 zenbakia hartzen du lehengo 195. artikulua; baina, 80. artikulua berriak 195. artikulua aipatzen jarraitzen du 191.a aipatu beharrean.

Adeitasunez,

Joseba Lozano Santos
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeke zuzendaria